

Ezagutzen dira 2025ko egutegia osatuko duten argazki lehiaketaren irabazleak

- **76 argazki aurkeztu dira lehiara, eta kalitate handiko argazkiak izan dira, epaimahaiaren esanetan**

Andoainen, 24-11-13.- Jakinak dira honezkero Andoaingo Udalak bere Udal Artxiiboaren bitartez antolatu ohi duen 2025ko Egutegia osatzeko argazki lehiaketaren irabazleak. Aurtengo edizioan 76 argazki aurkeztu dira, eta, epaimahaiak azpimarratu duen modura, kalitate handiko argazkiak ikusi ahal izan dira; tamalez hamabi bakarrik, aukeratu behar dira.

Kide hauek osatu dute epaimahaia: Marta Lasa Kultura zinegotziak, lehendakari moduan; Aritz Alkain zinegotziak, Eduardo Ulanga eta Aiora Arregi, Arteetan adituak, eta Karmele Otaegi, Udal Artxibariak. Hauetxek dira, berriz, irabazleen izenak eta argazkien izenburuak, lotu den hilabetearekin batera:

Urtarrila. 30. zbk. “Betiko kioskoa”. Unai Peñalvo Arregi
Otsaila. 11 zbk. “Delicatessen”. Miguel Cavero Carazo
Martxoa. 10 zbk. “Fruta eskura”. José Miguel Romero Barco
Apirila. 34 zbk. “Kale Nagusian euria”. Imanol Fernandez Carballo
Maiatza. 38 zbk. “Ohitura zaharrei tinko eutsi”. Nahia Rodiño López
Ekaina. 17. zbk. “Escaparate”. Juan Pablo Fernández Ramírez
Uztaila. 41. zbk. “Guraizeen azken dantza”. Ane Jalón Zatarain
Abuztua- 5. zbk. “Churrería Mendoza”. Fernando Anza Rey
Iraila. 45 zbk. “Tiempo”. Hilario Rodeiro Cabanas
Urria. 72. zbk. “Gau beltza”. Julián Guerrero Viejo
Azaroa. 2. zbk. “Arte en el comercio”. José Angel Amuchastegui Esnaola
Abendua. 56. zbk. “Contando ovejas”. Amparo Alonso Villares

Argazki hauetako bakoitzaren egileak, egutegiaren hilabete bat ilustratzeaz gain, 150 €ko bonoa jasoko du SALKINeko dendatan erosteko. Gogoratu nahi da irabazi ez duten argazkiak jasotzeko epea azaroak 30ean bukatuko dela, eta erretiratu ezean, Udal Artxibora pasako direla. Aurki jakinaraziko da sari banaketa ekitaldia noiz izango den.

